



LEHENDAKARIAK BIGARREN HEZKUNTZAKO ERAIKIN BERRIA BISITATU DU GUEÑESEN

- 186 ikasle ari dira ikasturte honetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten Gueñesen
- Eusko Jaurlaritzak 3,4 milioi euroko inbertsioa egin du azpiegitura berria eraikitzeko

Iñigo Urkullu Lehendakariak eta Cristina Uriarte Hezkuntza Sailburuak Eretza Berri ikastetxe publikoaren Bigarren Hezkuntzako eraikin berria bisitatu dute gaur eguerdiz, Sodupen (Gueñes udalerrian). Ikastetxeko zuzendaritza taldea lagun zutela, eraikin berriko instalazio nagusiak ezagutu dituzte. Eusko Jaurlaritzak 3,4 milioi euroko inbertsioa egin du eraikin berria egiteko lanetan. Ekitaldian, besteak beste, Gueñes eta Gordexolako alkateak ere parte hartzaile izan dira.

Bisita egin ondoren, bestalde, Lehendakaria eta sailburua Bigarren Hezkuntzako irakasle talde batekin elkartu dira, ikastetxean bertan.

Eretza Berri IPI

Eretza Berri Ikastetxe Publiko Integratuaren eraikin berriak DBHrako bi lerro ditu, eta hezkuntza maila hori jasotzen duten 250 ikaslerentzako gaitasuna du, gehienez. Joan zen otsailaren 19an (aste zuriaren ostean) hasi ziren DBHko ikasleak instalazio berriak erabiltzen. Ordura arte Eretza Berri ikastetxeak Sodupen bertan duen eraikin nagusian burutu dituzte ikasketak, eraikin berritik hurbil.

Eraikin berria egiteko lanak amaiturik, Enkarterriko udalerrri honetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak bere instalazio propioak ditu egun.

2017-2018 ikasturte honetan 186 ikasle ari dira DBH ikasten Eretza Berrin, dagoeneko eraikin berrian kokaturik. Gueñes udalerrikoak dira (Gueñes, Sodupe, Quadra eta Zaramillokoak) baina baita Gordexolatik hurbiltzen direnak ere. Ikasle horiez gain, Eretza Berri ikastetxe publikoak beste 306 ikasle ere baditu egun, Haur eta Lehen Hezkuntzan.

DBHrako eraikin berria Gueñesen

Gueñesko Eretza Berri ikastetxe publikoaren eraikin berriak orotara eraikitako 3.387,44 metro koadro ditu, eta mugikortasun urria duten pertsonentzat erabat irisgarri izateko moduan diseinatu da. Diseinu aurreratukoa, energia-eraginkortasun handiko material birziklagarriak eraiki da. Gainera, azken teknologiaz hornitu dira bere instalazioak: wifi sarea gela guztietan, ikasgela digitalak edo eguzki panelak, besteak beste. Behe solairuan eta horren gainean eraikiriko beste bi solairutan banatzen dira eraikin nagusia osatzen duten instalazio guztiak. Gimnasioa berriz –azaleran 321 metro koadro dituen- beste bolumen baten barnean egin da, eraikin nagusiarengandik berezia baina hari lotua, eta kanpoko kirol pistetarako sarrera-irteera zuzenak dituena.



Eraikin berriak dituen instalazio nagusien artean, hauek dira nabarmentzekoak:

- 10 ikasgela arrunt
- 2 banaketa gela
- Mintegietarako 5 bulego
- Informatika gela
- Teknologia gela
- Musika, dramatizazio eta audio gela
- Plastika gela
- Zientzia laborategia
- Jantokia: 100,86 m²
- Liburutegia – erabilera anitzeko gela: 105 m²
- Gimnasio estalia (321,84 m²) eta aldagelak
- Sarrerako aterpea: 144 m²
- Kanpoko kirol pista: 800 m²

- Eraikitako azalera orotara: 3.387,44 m²
- Hezkuntza Sailaren inbertsioa: 3.464.035,40 € (BEZ barne)

Hezkuntza-azpiegitura berriak 2018an

Gueñesko eraikin berria abian jartzearekin, Hezkuntza Sailak bere Azpiegitura Planean jasotako proiektu eta lanak osatzen jarraitzen du. Plan honek 300 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du orotara 2014-2018 aldirako. Azpiegitura Plan honen barnean, aurki amaituko dira beste hiru hezkuntza-azpiegitura garrantzitsu eraikitzeko lanak ere. Hala nola, Zabalgana Institutua Gasteizen; Pagasarribide Institutua Bilbon, eta Lanbide Heziketako Migel Altuna ikastetxea, Bergaran. Aurtengo udarako amaituta egongo diren hiru eraikin hauetan ia 19 milioi euroko inbertsioa egin du Hezkuntza Sailak.

Gainera, hil honetan bertan hasiko dira beste hiru ikastetxe eraikitzeko lanak ere: Errekabarri ikastetxe publikoa Gasteizen; Iruarteta ikastetxe publikoa Bilbon; eta Arroako eskola txikia, Zestoako Arroa auzoan. Hiru proiektu hauetan, berriz, 13 milioi euro pasatxokoa da inbertsioa. 2019-2022 aldirako Azpiegitura Plana prestatzeko lanean ari da egun, Hezkuntza Saila.

Gueñes, 2018ko martxoaren 5ean